



## MERKAEKIN 2026 MERKATARITZA-EKINTZAILETZARAKO LAGUNTZEN DEIALDIARI BURUZKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

### AURKIBIDEA

1.- Zein da laguntzaren helburua? .....	3
2.- Zenbatekoa da MERKATARITZA-EKINTZAILE EKIN+ deialdi honetako baliabide ekonomikoa? .....	3
3.- Nori zuzenduta dago laguntza? .....	3
4.- Zer laguntzen da diruz EKIN+ programaren barruan? .....	3
5.- AHOLKULARITZA programaren barruan aholkularitza egin ez badut, parte har dezaket EKIN+ laguntza-programan? .....	3
6.- Zer da JEZ? .....	4
7.- Zein JEZetan lagunduko dira diruz MERKAEKINen ekintzailletza-proiektuak? .....	4
8.- 8. oinarrian sartuta ez dauden EJZko epigrafe batean alta emanda banago, laguntza jasotzeko eskubidea ba al dut? .....	5
9.- Aginduaren 8. oinarrian banakatuta ez dagoen epigrafe batean alta emanda banago, diruz lagunduko den jarduera izango litzateke? .....	5
10.- Zenbat denbora lehenago egon behar dut alta emanda Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan laguntza eskatzeko? .....	5
11.- Lehendik zegoen negozio bat empresa-transmizioaren bidez eskuratu badut, transmizioa zenbat lehenago egin ahal izan da MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+ programan sartu ahal izateko? .....	6
12.- Nola eman dezaket alta Hirugarrenen Erregistroan? .....	6
13.- Laguntza ordezkartza bidez eskatuz gero, zer dokumentazio osagarri aurkeztu behar dut? .....	6
14.- Gutxienez noiz arte mantendu behar dut dirulaguntzaren onuradun izateko diruz lagundutako aktiboa? .....	6
15.- Inbertsioa "bigarren eskuko" aktibo baten gainean egin daiteke? .....	6
16.- Zein da diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioetan onartutako gutxienerako zenbatekoa? ...	6
17.- Zein da diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioetan onartutako gutxienerako zenbatekoa? ...	7
18.- Zenbat aurrekontu/proforma faktura/faktura aurkez ditzaket eskabidean? .....	7
19.- Zer gastu edo inbertsio onartzen dira MERKAEKIN EKINTZAILE EKIN+ programan? .....	7
20.- MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+ programaren barruan, zein gastu dira diruz lagungarriak? .	8

21.- MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+ programaren barruan, zein inbertsio dira diruz lagungarriak? .....	8
22.- Itzuli beharreko laguntza al da?.....	8
23.- Nire udalerrriak, lurralde historikoak, beste laguntza bat deitu du. Eska dezaket dirulaguntza hau ematen badidate?.....	8
24.- Nola komunika naiteke laguntza kudeatzen duen administrazioarekin? .....	8
25.- Nola aurkez dezaket dokumentazio osagarria? .....	8
26.- Posible al da laguntzara bideratutako baliabide ekonomikoak agortzea eta laguntza ez iristea? ..	8
27.- Nola dakit laguntza eman didatela?.....	8
28.- Zer epe du Administrazioak laguntza ebazteko? .....	9
29.- Noiz ordaintzen da laguntza?.....	9
30.- Noiz justifikatu behar dut diruz lagundutako jarduerak egin ditudala? .....	9
31.- Zer dokumentazio aurkeztu behar dut justifikatzeko? .....	9
32.- Zer gertatzen da azken fakturaren zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuarena baino handiagoa/txikiagoa bada?.....	9
33.- Zein kasutan itzuli behar da jasotako ordainketa? .....	9

### **1.- Zein da laguntzaren helburua?**

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) merkataritza-ekintzaitza sustatzea, merkataritzaren ezaugarri berezietara egokituta, eta sektore horretako pertsona eta enpresa ekintzaileei laguntzea bi programaren bidez. MERKATARITZA-EKINTZAILE EKIN+en kasuan, aurrez egindako aholkularitzan planteatutakoa gauzatzen diruz laguntzeko da.

### **2.- Zenbatekoa da MERKATARITZA-EKINTZAILE EKIN+ deialdi honetako baliabide ekonomikoa?**

703.937,50 eurokoa I. INBERTSIOAK atalerako eta 140.787,50 eurokoa II. GASTUAK atalerako.

Aurrekontu-kreditu hori agortzen bada, Merkataritza Zuzendaritzako titularrak ebazpena argitaratuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA).

### **3.- Nori zuzenduta dago laguntza?**

Ekintzaileei; pertsona fisikoak, talde sustatzaileak, autonomoak, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak izan daitezke, bai eta kooperatibak, lan-sozietateak eta gainerako merkataritza-sozietateak ere, betiere mikroenpresak eta enpresa txikiak badira, eta haien jarduera ekonomikoa 8. oinarrian jasotako JEZko epigrafeetako batean sartuta badago edo sartzeko asmoa badago, eta jarduera ekonomikoa EAEn egin behar bada edo egiteko aurreikusita badago.

Pertsona fisikoen eta autonomoen kasuan, 18 urtetik gorakoak izan beharko dute eta EAEn erroldatuta egon beharko dute.

Mikro-enpresek eta enpresa txikiek 4.2. oinarrian jasotako definizioaren arabekoak izan beharko dute:

Mikroenpresa: hamar soldatapeko baino gutxiago eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 2 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

Enpresa txikia: berrogeita hamar soldatapeko baino gutxiago, eta negozio-bolumena edo balantze orokorra 10 milioi eurotik beherakoa izatea.

Enpresa batek, kontuak ixteko egunean egiaztatzen badu negozioaren urteko bolumenaren mugak gainditu direla zentzu batean edo bestean, egoera horrek enpresa ertain edo txikiaren edo mikroenpresaren izaera eskuratzea edo galtzea eragingo du, baldin eta soberakin hori ondoz ondoko bi ekitalditan gertatzen bada.

Bestalde, pertsona fisikoen elkarrekin (talde sustatzaileak), ondasun-erkidegoetan eta sozietate zibiletan, parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak izango dira onuradun, eta guztiak bete beharko dituzte deialdi honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak.

### **4.- Zer laguntzen da diruz EKIN+ programaren barruan?**

Eskabidean aurkeztutako Negozio Planean aurreikusitako ekintzak gauzatzeko egin behar diren gastuak eta inbertsioak lagunduko dira diruz.

### **5.- AHOLKULARITZA programaren barruan aholkularitza egin ez badut, parte har dezaket EKIN+ laguntza-programan?**

Ez da beharrezkoa aholkularitza AHOLKULARITZA programaren barruan egitea.

EKIN+ laguntza-programan sartzeko, AHOLKULARITZA programatik kanpo egindako aholkularitzarekin, planek baldintza hauek bete behar dituzte:

Egindako planak 13.1 oinarrian aurreikusitako gutxieneko edukiak bete behar ditu. Aholkularitzak gutxienez 25 orduko iraupena izan behar du, eta 2024ko urtarrilaren 1a baino geroagokoa izan behar

du.

EKIN+ AHOLKULARITZA-ENPRESAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN 4-EREDUA aurkeztu beharko da, 14.1 oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko.

## 6.- Zer da JEZ?

Kode bat da egiten duzun "Jarduera ekonomikoaren identifikatzailea" da.

## 7.- Zein JEZetan lagunduko dira diruz MERKAEKINen ekintzailatza-proiektuak?

Txikizkako merkataritzari dagozkion epigrafe hauek dira:

641. Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.

642. Produktu hauen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletzeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.

643. Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

644. Ogi, pastel, gozoki eta antzekoen eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

645. Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.

646.1. Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorretan, berezietan eta barnekoetan egiten denean.

646.2. Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorren aldi baterako hedapenetan egiten denean.

646.7. Baimen bereziak dituzten ezindu fisikoek egindako tabako-laboreen txikizkako merkataritza.

646.8. Erretzaileentzako artikuluen txikizkako merkataritza.

647.1. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako salmenta, establezimendu saltzailedunetan.

647.2. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan, saltzeko gelak 120 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko azalera duenean.

647.3. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan superzerbitzutan, hala hartuta saltzeko gela 120 eta 399 m<sup>2</sup> artekoa denean.

647.4 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan, superzerbitzutan, hala hartuta saltzeko gelak 400 m<sup>2</sup> baino handiagoko azalera duenean.

651. Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

652 Sendagaien, drogeriako eta garbiketako gaien, lurringintzaren, kosmetikoen eta abarren txikizkako merkataritza.

653. Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza. 656. Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.

657. Musika-tresnen eta horien osagarrien txikizkako merkataritza.

659. Bestelako txikizkako merkataritza. 662. Txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.

691 Etzerako gai elektrikoak, ibilgailu automobilak eta bestelako kontsumo-ondasunak konponketa

971. Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.

972. Ile-apaindegiak eta edertasun-apaindegiak.

973 Argazkigintza-zerbitzuak, argazki-makina automatikoak eta fotokopiatzeko zerbitzuak

975. Markogintza-zerbitzuak.

### **8.- 8. oinarrian sartuta ez dauden EJZko epigrafe batean alta emanda banago, laguntza jasotzeko eskubidea ba al dut?**

Zure negozio-idea berria 8. oinarrian sartutako epigrafeen barruan badago bakarrik. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoa EAEen egin beharko da edo egiteko aurreikusita egon beharko da.

### **9.- Aginduaren 8. oinarrian banakatuta ez dagoen epigrafe batean alta emanda banago, diruz lagunduko den jarduera izango litzateke?**

Bai. Adibidez, 659. Bestelako txikizkako beste merkataritza epigrafean, honako epigrafe hauek lagunduko lirateke diruz: 659.1 epigrafea: Zigiluen, txanponen, oroitzapenezko dominen, bildumagileentzako txartelen, artelanen eta antzinako gauzen, mineral solteen edo bildumetako mineralen, fosilen, intsektuen, maskorren, landare eta animalia disekatuen txikizkako merkataritza, 659.2 epigrafea: Bulegoko altzarien eta bulegoko makina eta ekipoen txikizkako merkataritza, 659.3 epigrafea: Medikuntzako, ortopediako, optikako eta argazkigintzako tresna eta tresnen txikizkako merkataritza, 659.4 epigrafea: Liburuen, egunkarien, papergintzako eta idazmahaiko artikuluen eta marrazketa eta arte ederretako artikuluen txikizkako merkataritza, 659.5 epigrafea: Bitxigintzako, erlojugintzako, zilargintzako eta imitaziozko bitxigintzako artikuluen txikizkako merkataritza, 659.6 epigrafea: Jostailuen, kirol-gaien, jantzien, oinetakoen eta buruen, armen, kartutxoaren eta pirotekniako gaien txikizkako merkataritza, 659.7 epigrafea: Hazi, ongarri, lore eta landare eta animalia txikien txikizkako merkataritza, 659.8 epigrafea: "Sex-shop" izeneko txikizkako merkataritza eta 659.9 epigrafea: Multzo honetan zehaztu gabeko beste produktu batzuen txikizkako merkataritza.

### **10.- Zenbat denbora lehenago egon behar dut alta emanda Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan laguntza eskatzeko?**

Planean jasotako negozio-idea berriari dagokion epigrafean alta emanda egoteko gehieneko antzinatasuna 2025eko urtarrilaren 1a da, gehienez ere.

Adibideak:

[Pertsona fisikoa/autonomia naiz eta ez nago JEZko epigrafe batean ere alta emanda. 8. oinarriko epigrafe bati lotutako merkataritza-establezimendu bat ireki nahi dut:](#)

Laguntza eskatzeko, baliteke JEZ horretan alta emanda ez egotea edo 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera alta emanda egotea.

[Nire negozioa alta emanda dago JEZko epigraferen batean, eta ideia bat daukat dibertsifikatzeko/zabaltzeko, 8. oinarriko JEZko epigrafeetako batean:](#)

Dibertsifikatzeko/zabaltzeko ideia berriaren epigrafea baliteke JEZ horretan alta emanda ez egotea edo gehienez 2025eko urtarrilaren 1etik alta emanda egotea.

Ez du axola zure negozioaren epigrafean (aurreko JEZ) noiztik zauden alta emanda.

Nire negozioa alta emanda dago 8. oinarriko epigrafe batean, eta ideia bat dut epigrafe bereko establezimendu berri bat irekitzeko EAEko beste leku batean.

Epigrafeari kokapen berri batean alta emateko, baliteke JEZ horretan alta emanda ez egotea edo 2025eko urtarrilaren 1etik alta emanda egotea gehienez.

Ez du axola zure negozioaren epigrafean (aurreko JEZ) noiztik zuaden alta emanda.

### **11.- Lehendik zegoen negozio bat empresa-transmizioaren bidez eskuratu badut, transmizioa zenbat lehenago egin ahal izan da MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+ programan sartu ahal izateko?**

Lehendik dagoen denda bat enpresa-transmisio bidez eskuratzen den kasuetan, negozioaren titulartasuna ez da 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen eskualdatua izan beharko.

### **12.- Nola eman dezaket alta Hirugarrenen Erregistroan?**

Hirugarrenen Erregistroan alta emanda ez badago, alta eman beharko zaio. Esteka honetan duzu informazio guztia: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenen-erregistro-telematikoa/web01-s2oga/eu/>.

### **13.- Laguntza ordezkari bidez eskatuz gero, zer dokumentazio osagarri aurkeztu behar dut?**

Ordezkariekin jardun nahi izanez gero, beste pertsona bati eman ahal izango zaio ordezkari, honako bide hauek erabiliz:

Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoa kokatua: ([Ahalordeen erregistro elektronikoa - Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa)).

«Borondatezko legezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua» ([Borondatezko Legezko Ordezkaritza Egilestea - Inprimaki normaldua - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea)) behar bezala formalizatuta. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

Eskaeraren sinatzaileak bat etorri behar du «borondatezko legezko ordezkari emateko inprimaki normalizatuan» adierazitako ordezkari onartzen duen pertsonaren datuekin edo ahalordetzeen erregistro elektronikoa baimendutako pertsonaren datuekin.

### **14.- Gutxienez noiz arte mantendu behar dut dirulaguntzaren onuradun izateko diruz lagundutako aktiboa?**

Dirulaguntzaren xede izan diren ondasunen xedeari eutsi behar zaio, eta emakida-eskabidean aurreikusitako helburuari aplikatu behar zaizkio, gutxienez hiru urtez, proiektua gauzatzen amaitzen denetik aurrera, edo haren bizitza baliagarrian zehar, hura txikiagoa bada.

[Epe horretan ezin izango zaizkie hirugarren pertsona fisiko edo juridikoei laga.](#)

### **15.- Inbertsioa "bigarren eskuko" aktibo baten gainean egin daiteke?**

Bai, baldin eta oinarrietan diruz laguntzeko inbertsio gisa jasotako baldintzak betetzen baditu.

### **16.- Zein da diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioetan onartutako gutxieneko zenbatekoa?**

Diruz lagunduko dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra arte egindako gastuak eta inbertsioak.

### 17.- Zein da diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioetan onartutako gutxieneko zenbatekoa?

Zenbateko guztiak BEZik gabe:

MERKATARITZA EKINTZAILETA MerkaEkin	MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+	
	INBERTSIO ATALA	GASTUEN ATALA
Onartutako gutxieneko zenbatekoa	5.000 euro	1.500 euro
Onartutako gutxieneko zenbatekoa inbertsio/gastu mota bakoitzeko	500 euro	100 euro
Onartutako gehieneko zenbatekoa	31.250 euro	9.375 euro
Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa	Onartutako inbertsioen % 80; baina gehienez 25.000 euro	Onartutako inbertsioen % 80; baina gehienez 7.500 euro

### 18.- Zenbat aurrekontu/proforma faktura/faktura aurkez ditzaket eskabidean?

Ez dago mugarik aurkeztu beharreko zenbatekoan. Aginduaren arabera diruz lagun daitezkeen gastu/inbertsio guztiak onartuko dira, baina onartutako zenbatekoa honako hauetara mugatuko da:

- Inbertsioen kasuan: 31.250 euro.

- Gastuen kasuan: 7.500 euro.

Adibidea:

Inbertsioetarako 3 aurrekontu aurkeztu ditut:

Merkataritza-lokala: 25.000 €

Makineria: 10.000 €

Teknologia: 6.000 €

Aurkeztutakoa, guztira: 41.000€

Onartutako zenbatekoa: 31.250 €

Emandako zenbatekoa: 25.000 € (onartutako inbertsioaren % 80)

### 19.- Zer gastu edo inbertsio onartzen dira MERKAEGIN EKINTZAILE EKIN+ programan?

Negozio-planean jasotako gastuak edo inbertsioak bakarrik onartuko dira. Gastuak/inbertsioak inprimakian zehaztu beharko dira eskabidea egiteko unean.

Onartutako gutxieneko zenbatekoa inbertsio/gastu motaren arabera hartuko da kontuan, ez aurrekontu/faktura/proforma/fakturaren arabera.

Justifikatzeko epea 2027ko otsailaren 28a da.

Ordainketa-frogagiriaren agindu-emaileak bat etorri behar du laguntzaren eskatzailearekin.

## **20.- MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+ programaren barruan, zein gastu dira diruz lagungarriak?**

Aginduaren 25. oinarrian jasotako gastuak lagundu ahal izango dira diruz.

## **21.- MERKATARITZA EKINTZAILE EKIN+ programaren barruan, zein inbertsio dira diruz lagungarriak?**

Aginduaren 22. oinarrian jasotako inbertsioak lagundu ahal izango dira diruz.

## **22.- Itzuli beharreko laguntza al da?**

Ez. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da, betiere emakidaren eta justifikazioaren baldintzak betetzen badira. Inbertsioen kasuan, inbertsioak diruz lagundutako establezimenduaren aktiboan egon beharko du hiru urtez.

## **23.- Nire udalerrriak, lurralde historikoak, beste laguntza bat deitu du. Eska dezaket dirulaguntza hau ematen badidate?**

Bai. Bateragarria da administrazio publikoek eta/edo erakunde pribatuak helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

Eskatutako edo jasotako laguntzei buruzko informazioa eman behar da.

## **24.- Nola komunika naiteke laguntza kudeatzen duen administrazioarekin?**

Eskaeraren ondorengo izapideak (jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren «Nire karpeta» aplikazioaren bidez egin daitezke: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>.

Pertsona fisikoa bazara, modu presentzialean entrega dezakezu zure eskabidea. Horretarako, gomendatzen dizugu online inprimakian sartzea eta, "aurrez aurreko tramitazioa" aukeratu ondoren, datuak betetzea, dokumentazioa online igotzea eta, ondoren, Zuzenean zerbitzura joatea zure nortasun-agiriarekin eta izapidea arintzeko lortutako QR kodearekin.

Zalantzarik baduzu, hona idatz dezakezu [merkaekin@euskadi.eus](mailto:merkaekin@euskadi.eus).

## **25.- Nola aurkez dezaket dokumentazio osagarria?**

Erakunde eskatzaileak nahitaezko dokumentazioaren gain, dokumentazio osagarria aurkez dezake (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>), prozeduraren edozein unetan, eskaera egin bazaio edo borondatez egiten badu, edo aitortutako edozein datu argitzen duen memoria bat bada. Kontuan izan behar da, eskabidea aurkeztu ondoren dokumentazioa aurkezten bada, eskabidea osorik aurkezteko data azken dokumentua aurkeztu den eguna izango dela, eta dokumentu hori zuzena dela.

## **26.- Posible al da laguntzara bideratutako baliabide ekonomikoak agortzea eta laguntza ez iristea?**

Bai, posible da. Aurrekontuan sartutako kreditua agortzen bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Laguntzak ondoz ondoko emakida-prozeduraren bidez ematen dira. Eskabideak ordenan ebartziko dira, dagokion espedientea osatuta dagoen unearen arabera.

## **27.- Nola dakit laguntza eman didatela?**

Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da "nire karpeta" atalaren bidez. Pertsona fisikoen kasuan, horretarako adierazitako bidea erabiliz jakinaraziko da.

### **28.- Zer epe du Administrazioak laguntza ebazteko?**

Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzak banaka eta modu ordenatuan ebatziko du, gehienez ere 6 hilabeteko epean, oinarri hauetan eskatutako dokumentazio guztiarekin eskabidea osatu den egunetik zenbatzen hasita.

Epearen barruan ebazpenik eman ezean, pertsona edo erakunde interesdunak ezetsizat jo ahal izango du bere asmoa, organo eskudunak ebazpen adierazia emateko duen betebeharrari kalterik egin gabe.

### **29.- Noiz ordaintzen da laguntza?**

Bi ordainketa egingo dira:

Lehenengo ordainketa, emandako zenbatekoaren ehuneko 70, laguntza emateko eta onartzeko ebazpena eman ondoren.

Egindako gastuen justifikazioa likidatu ondoren dagokion gainerako zenbatekoa.

### **30.- Noiz justifikatu behar dut diruz lagundutako jarduerak egin ditudala?**

Justifikatzeko epea emakidaren egunetik 2027ko otsailaren 28ra artekoa izango da.

### **31.- Zer dokumentazio aurkeztu behar dut justifikatzeko?**

- Egindako gastuen eta laguntzaren xede den jarduerarekin duten loturaren memoria deskribatzailea. Aurkeztutako fakturen zerrenda xehatua jaso beharko du, fakturaren zenbakia, ordainketa-data eta BEZik gabeko zenbatekoa adierazita. Eredua hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250702>.

- Egindako inbertsioei eta gastuei dagozkien fakturak; horiek dirulaguntzaren onuradunaren izenean eginda egon beharko dute. Diruz lagun daitezkeen aktiboen deskribapenak argi eta garbi identifikatuta egon behar du, eta ez da kontzeptu kodifikaturik onartuko.

- Fakturen ordainagiriak.

- Publizitateari eta informazioari buruzko betebeharra bete izanaren argazkiak edo dokumentu-frogak, 35.1.r) oinarrian ezarritakoaren arabera Eusko Jaurlaritzak jarduera diruz lagundu duela egiaztatzen dutenak.

Baldintza hori betetzeko, KARTEL eredu bat dago eskuragarri helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250702>.

- Justifikatu beharreko jarduera berberetarako beste finantzaketa-iturri bat jaso bada, betetako eredua: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250702>.

### **32.- Zer gertatzen da azken fakturaren zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuarena baino handiagoa/txikiagoa bada?**

Fakturaren zenbatekoa aurkeztutako aurrekontua baino handiagoa bada, ez da aldatuko dirulaguntza emateko ebazpenean emandako zenbatekoa.

Fakturaren zenbatekoa eskaeran aurkeztutako aurrekontuarena baino txikiagoa bada, emandako zenbatekoa gutxitu egingo da.

### **33.- Zein kasutan itzuli behar da jasotako ordainketa?**

- Aginduan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada.

- Diruz lagundutako jarduerak egin izana justifikatu ezean.

- Justifikatutako zenbatekoa jasotako lehen ordainketa baino txikiagoa bada.
- Ordainketaren bat jaso ondoren emandako laguntzari uko egin bazaio.

Kasu horietan, ordaindutako zenbatekoa eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira.